



SARE SOZIALAK REDES SOCIALES

44

DEFINIZIOA Zer da?

Interneten eremuan, sare sozialak pertsonak beren artean konektatzeko diseinatutako inguruneak dira; bertan, pertsonak edukiak partekatzen dituzte, elkarrekintzan jarduten dute eta interes komunak dituzten komunitateak sortzen dituzte. Sare sozial ospetsuenak Facebook, Hi5, MySpace, Tuenti, Twitter eta Orkut dira. Gai espezifikoetarako sare sozialak ere badaude, hala nola MySofa.es, kultura jomugan duena, eta LinkedIn, lan-harremanen ingurukoa.

Sare sozialak ez dituzte enpresa handiek edo erakundeek soilik sortzen. Hainbat zerbitzuek eta programak nork bere sare propioa sortu ahal izatea ahalbidetzen du. Horien artean Ning —lineako zerbitzua du— eta Elgg —zerbitzari batean instalatzen den programa— aipa genitzake. Oro har, hezkuntza-sare asko esparru pertsonalizagarri horietan sortzen dira.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

En el ámbito de Internet, las redes sociales son entornos diseñados para que las personas se conecten entre sí., compartiendo contenidos, interactuando y creando comunidades con intereses comunes. Las redes sociales más populares son Facebook, Hi5, MySpace, Tuenti, Twitter y Orkut. Existen también redes sociales dedicadas a temas específicos, como MySofa.es abocada a la cultura, o LinkedIn para las relaciones laborales.

Las redes sociales, no solamente las generan las grandes empresas u organizaciones, también existen servicios y programas para que toda persona pueda generar su propia red. Es el caso de Ning, que dispone del servicio en línea y Elgg que es un programa que se instala en un servidor. Por lo general muchas redes educativas se generan en estos espacios personalizables.

BALIABIDEAREN ERABILERA

Dagoeneko sortuta dagoen sare sozial batean parte hartzeko haren webgunean sartu eta erregistratu

Nola erabiltzen da?

egin behar da. Lehenik eta behin, sareko beste kide batzuekin konektatu eta gure kontaktuetan gehitu behar dira. Hortik aurrera, gure kontaktu edo lagunek sarean egiten dituzten mugimendu guztiak ikusi ahal izango ditugu (argazkirik kargatu ote duten, edo iruzkinen bat egin, edo interes-taldean hasi ote diren, etab.); eta gure lagunek gure mugimenduak ikusiko dituzte. Zer mugimendu eta norekin partekatu nahi ditugun zehatz daiteke.

Ning-en moduko zerbitzu batekin, minutu gutxi behar dira sare bat sortu eta abian jartzeko. Sortzen dugun sarea guztiz eskuragarri egongo da interneten, eta bertan sartzeko web-helbide espezifikoak izango du. Sare propioa sortzeak bertan parte hartzera gonbida daitekeen pertsona talde ugaria izateko aukera zabaltzen du. Ikasturte baterako soilik egingo balitz, sare soziala oso pobrea litzateke. Kolektibo handiagoa aintzat hartuta pentsatu behar dugu sarea, besteak beste ikastetxe osoa edo ikastetxe talde bat, ikasgela talde bat edo lankidetzaren proiektu luze bat aintzat hartuta, esate baterako.

Sare sozial baten barruan, interes bereko talde txikiak edo **lan-taldeak** sor daitezke. Taldeak sareko kide guztientzat irekiak izaten dira, edo itxiak (gonbidatuta baino ezin da bertan parte hartu); halaber, luzaroan zabalik egon daitezke edo denbora-tarte jakin batez. Taldeko kide izateko sistema eta taldeak sortzeko neurritasuna unean uneko premien arabera konfiguratu daitezke.

UTILIZACIÓN RECURSO
¿Cómo se usa?

Para formar parte de en una red social ya constituida se debe acceder al sitio web y registrarse. El primer paso es conectarse con los otros miembros de la red e incorporándolos entre los contactos. A partir de allí podremos ver todos los movimientos en la red que realizan nuestros contactos o amigos (si han subido fotos, o comentado alguna cosa, o iniciado al grupo de interés, etc), así como nuestros amigos verán también los nuestros. Es posible especificar qué movimientos queremos compartir y con quienes.

Con un servicio como Ning, se puede crear y poner en marcha una red en pocos minutos. La red que creamos estará automáticamente disponible en Internet y tendrá su dirección web específica para acceder. La creación de una red propia supone la posibilidad de contar con un buen número de personas a quienes invitar a forma parte. Una red social para un solo curso, resultaría muy pobre. Debemos pensarla para un colectivo mayor, como todo el centro educativo, o un grupo de centros, un grupo de aulas, un proyecto colaborativo prolongado, etc.

Al interior de una red social, se pueden crear pequeños grupos de intereses comunes o **grupos de**

trabajo. Los grupos pueden ser abiertos a todos los miembros de la red o cerrados (se accede solo pro invitación), pueden permanecer abiertos por periodos prolongados o por un lapso determinado. El sistema para pertenecer al grupo así como la moderación en la creación de los grupos es configurable según las necesidades del momento.

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Sare sozialaren arrakasta arlo pertsonala besteei transmititzeko ahalmenean oinarritzen da. Eta horrek garrantzi berezia du nerabeen artean. Egiten dudanaren bitartez besteek ni ezagutzea eta egiten dutenaren bitartez nik haiek ezagutzea. Ikasleei eskola-eremuan erabiltzen den gure sarearen bitartez harremanak ezartzeko askatasuna emateko, lehenik eta behin mugak non dituzten eta ikastetxea, irakasle kolektiboa eta ikaskideak errespetatzen erakutsi behar zaie. Horrelako gauzak ikasteko aparteko baliabidea da sare soziala eta, horregatik besterik ez balitz ere, merezi izango luke erabiltzea.

Sare sozialetan lan-taldeentzat hainbat hezkuntza-erabilera izan daitezke, hala nola:

- Ikasgela-taldeak tutoretzarako; tutoreak tutoretzarekin zerikusia duten oharrak emango ditu edo egokitzen jotzen diren gaiei buruzko elkarrizketak egingo dira.
- Irakasgai jakin batzuetarako taldeak; irakasleak etxeko lanak jarriko ditu, baita bere ikasgelako bloga (kanpoko edo sare barnekoa izan daiteke) eta azterketetako notak ere. Ikasleek bertan ikasgaiari buruzko galderak egin ahal izango dituzte.
- Ikasle talde txikiak egin daitezke, irakasgairen bateko aldi baterako lanak egiten dituzten bitartean harremanetan egon daitezken ikasleak.
- Ikasgela arteko taldeak, baita eskola artekoak ere, proposamen jakin baten inguruan lan egiteko (Webquesta, unitate didaktikoak, proiektu telematikoa, etab.).

Sare sozial batean sortzen diren blog, wiki eta web-orriak oso oinarritzkoak izan ohi dira; aukera gutxi izaten dituzte. Dena den, multimedia objektuak txertatzea eta beste gune batzuetara erreferentziatzea ahalbidetzen dute, eta sarea elkartzeko, koordinatzeko eta kanpo-erreferentziarako eremu birtual gisa geratzen da.

Sarearen kontrola eta pribatutasuna

Sareen administratzaileek oso erraz kontrola ditzakete sarea. Argitaratu den eduki desegokia ezaba dezakete, eta erabiltzaileak blokeatu. Adin txikikoekiko lanak sare itxiekin lan egitera behartzen du, haien izenak edo haiek identifikatzea ahalbidetzen duen bestelako daturik —hala nola haien profilaren argazkia— heda ez dadin.

Bestalde, nabarmendu behar da egiletza-eskubideak aplikatzen zaizkiela ikasleek egindako lanei, argitaratzen badira. Horregatik, berariazko baimena egin behar da, eskola-ingurunean sare sozialak erabiltzeko lege-babesa lortzearren.

Irakasleen eta eskola-komunitatearen sare sozialak

Batez ere ikasleak hartu dituzte jomugan, baina sare sozialak oso erabilgarriak izan daitezke inondik ere **irakasleen artean** (beren sare propioa sortuta), departamentuen artean lan egiteko, irakasgai eta maila bereko irakasleek elkarrekin jarduteko, ikastetxeko zuzendaritzak informazioa emateko, koordinatzeko, etab. Ezbairik gabe, irakasleen arteko sare sozialak barne-komunikazioak erraztuko ditu eta koordinazioaren eraginkortasuna eta irakasleen arteko lana eta loturak sustatuko.

Familientzako sare soziala egitea haiekin harremanetan jartzeko bide eraginkorra izan daiteke. Gainera, oso litekeena da gurasoek beren seme-alaben hezkuntzarekiko duten inplikazioa gehitzea.

(Iturria: <http://jjdeharo.blogspot.com/2008/11/la-redes-sociales-en-educacin.html> Juan José de Haro. "Las redes sociales en educación" bloga)

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

La red social basa su éxito en la capacidad que tiene de transmitir lo personal ante los otros. Algo que adquiere especial relevancia entre los adolescentes. Que los otros me conozcan a través de lo que yo hago y yo a ellos por lo que hacen. Pero dejar libertad a los alumnos para que establezcan sus relaciones a través de nuestra red utilizada en el ámbito escolar, implica también enseñarles a conocer dónde están sus límites y a respetar al centro educativo, el colectivo de profesores y a los propios compañeros. La red social es un medio excelente para aprender este tipo de cosas y aunque sólo fuese por esto ya merecería la pena su uso.

Algunos usos educativos para los grupos de trabajo dentro de una red social pueden ser:

- Grupos de clase para tutoría, donde el tutor dé avisos relacionados con la misma o se establezcan

diálogos sobre los temas que se consideren oportunos.

- Grupos para asignaturas concretas, donde el profesor ponga los deberes, el blog de su clase (que puede ser externo o interno a la red), las notas de los exámenes o los alumnos hagan preguntas sobre la materia.
- Se pueden hacer grupos de unos pocos alumnos, para que estén en contacto mientras realizan trabajos temporales en alguna asignatura.
- Grupos interclases, e incluso interescolares para trabajar en torno a una propuesta concreta (Webquest, unidad didáctica, proyecto telemático ...).

Los blogs, wikis o páginas web que se crean en una red social, son por lo general muy básicos con escasas opciones, pero permiten incrustar objetos multimedia y referenciar a otros sitios, quedando la red como espacio virtual de encuentro, coordinación y referencia exterior.

Control de la red y privacidad

Las redes son perfectamente controlables por parte de los administradores de las mismas. Éstos pueden eliminar tanto contenido publicado inapropiado, como bloquear a usuarios. El trabajo con menores de edad obliga a trabajar con redes cerradas para evitar la difusión de sus nombres u otros datos que permitan su identificación, como puede ser la fotografía de su perfil.

Por otro lado, cabe destacar que los derechos de autoría también son aplicables a los trabajos desarrollados por los alumnos, en el caso en que sean publicados. Por ello, es preciso elaborar una autorización específica que proporcione amparo legal en el uso de las redes sociales en el entorno escolar.

Redes sociales de docentes y de la comunidad escolar

Se ha centrado en los alumnos, pero las redes sociales pueden tener una innegable utilidad **entre los propios profesores** (creando su red aparte) para trabajar entre los Departamentos, profesores de una misma asignatura en un nivel determinado, para emitir información por parte de la Dirección del centro, coordinación etc. Lo que sin lugar a dudas puede facilitar las comunicaciones internas así como la eficacia en la coordinación, el trabajo entre profesores y los lazos de unión entre ellos.

Hacer una red social **para familias** puede ser un medio muy eficaz de entrar en contacto con ellos. Además de que, muy probablemente, aumente la implicación de los padres para con la educación de sus hijos.

(Fuente: <http://jjdeharo.blogspot.com/2008/11/la-redes-sociales-en-educacin.html> Juan José de Haro. Blog Las redes sociales en educación)

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Ning

<http://www.ning.com/>

Kanporako itxiak izan daitezkeen sare sozialak eskaintzen ditu doan. Gainera, 12-18 urteko ikasleen hezkuntzarako, Googleko publizitatea kentzen du, zuzenean eskatuz gero (Wikispaces-ek bere wikietarako egiten duen bezalaxe). Beste abantaila batzuk ere baditu, hala nola sareko testuak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko eta aldatzeko aukera; hortaz, sarea pertsonalizatu egin daiteke norberaren premien arabera.

Elgg (ingelesez)

<http://elgg.org/>

Hezkuntzarako berariak sortutako sarea da. Dena den, zerbitzari propioa behar du, eta, instalatzeko, ezagutza tekniko jakin batzuk eduki behar dira. Instalatuta dagoenean erraz eta modu intuitiboan erabiltzen da, eta nahi den hizkuntza konfiguratu daiteke.

Facebook: <http://www.facebook.com/>

MySpace: <http://es.myspace.com/>

Hi5: <http://hi5.com/>

Hiru sare sozial horiek edonorentzat irekita daude. Hezkuntza-eremurako, argitaratutako materialari dagokionez, sakabanaketa handiko eta kontrol-mekanismo urriko guneak dira. Modu lehenetsian profil batzuk denentzat ikusgarri daudenez (gero, hala ere, mugatu egin daitezke), ez da komeni adingabeekin erabiltzea, eta gurasoen berariak baimenak behar dira. Ikasleak beren bizitza pertsonalean sare

horretako edo antzeko sareren bateko kideak badira, kontaktu horiek iritziak biltzeko edo kontsultak egiteko aprobetxa daitezke, ikasleen eskola-ikerlanetarako datu-iturri gisa.

Tuenti (euskaraz, katalanez, galegoz eta gaztelaniaz)

<http://www.tuenti.com>

Tuenti Espainiako gazteei bideratutako sare sozial birtuala da; sarbidea mugatua du, eta, beraz, erregistratuta dagoen kide batek gonbidatuta baino ezin da bertan sartu.

Twitter

<http://twitter.com/>

Microblogging-eko doako zerbitzua da, erabiltzaileei testuan oinarritutako mikrosarrerak bidaltzea ahalbidetzen du. Mikrosarrera horiek "tweet" izena dute eta gehienez 140 karaktere dituzte. Mezu horiek hainbat modutan bidal daitezke, Twitterren webgunetik, sakelako telefonoaz SMS bidez, berehalako mezularitzako programen bidez edo hirugarrenen edozein aplikaziotatik. Erabiltzaile bakoitzak nori "jarraitu" aukeratu eta erabiltzaile horiek bidaltzen dituzten mezuak jasoko ditu berehala.

Ning

<http://www.ning.com/>

Ofrece redes sociales de forma gratuita que pueden ser cerradas al exterior. Además, para la educación con alumnos de 12 a 18 años elimina la publicidad de Google si se les pide directamente (tal como hace Wikispaces para sus wikis). Tiene otras ventajas como es la posibilidad de traducción a otros idiomas y la modificación de los textos de la red, por lo que ésta puede ser personalizada según las necesidades particulares.

Elgg (en inglés)

<http://elgg.org/>

Es una red creada específicamente para la educación. No obstante, necesita un servidor propio, y ciertos conocimientos técnicos para instalarla. Una vez instalada es de uso fácil e intuitivo y se puede configurar el idioma deseado.

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

Facebook <http://www.facebook.com/>

MySpace <http://es.myspace.com/>

Hi5 <http://hi5.com/>

Son redes sociales abiertas a cualquier persona. Para el ámbito educativo, se trata de espacios de mucha dispersión y escasos mecanismos de control del material publicado. El hecho de que parte de los perfiles sean visibles a todos por defecto (aunque luego se puede limitar) hace desaconsejable su uso con menores, requiriendo autorizaciones paternas muy explícitas. Si los alumnos son miembros de esta red u otras similares en su vida personal, se pueden aprovechar estos contactos para recoger opiniones o hacer consultas como fuentes de datos para sus investigaciones escolares.

Tuenti (en euskera, catalán, gallego y castellano)

<http://www.tuenti.com>

Tuenti es una red social virtual dirigida a la población joven española, de acceso restringido a la que se accede solo con invitación de un miembro registrado.

Twitter

<http://twitter.com/>

Es un servicio gratuito de microblogging que permite a sus usuarios enviar micro-entradas basadas en texto, denominadas "tweets", de una longitud máxima de 140 caracteres. El envío de estos mensajes se puede realizar tanto por el sitio web de Twitter, como vía SMS desde un teléfono móvil, desde programas de mensajería instantánea, o incluso desde cualquier aplicación de terceros. Cada usuario escoge a quienes 'seguir' y recibirá instantáneamente los mensajes que esos usuarios envíen.